

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Lanbide-tailer berriak abian jarri dira 12 espezialitate eta 142 ikaslerekin

*DBHko titulurik ez duten 17-21 urte arteko gazteentzako hezkuntza-
eskaintza berritzailea da, eta gazte horiek prestatzen dira lanbide-
jarduera batean aritzeko*

Lunes, 06 de octubre de 2014

Guztira, 142 pertsona matrikulatu dira [Oinarrizko LH](#)rekin batera abian jarri diren hamabi lanbide-tailerretan. Horiek lehengo Hasierako Lanbide Kualifikazio Programen (HLKP) ordeztu jarri dira martxan ikasturte honetan. Eskaintza berria DBHn Graduatuko titulurik ez duten 17-21 urte arteko gazteentzat da, ezin dutenak Oinarrizko LH ikasi adin-muga gainditzen dutelako, baina prestatu nahi dutenak lanbide-jarduera bat egiteko.



Lanbide Heziketako ikasle bat.

Hezkuntza Departamentuko teknikariek azpimarratzen dute, berrikuntza moduan, tailer berriek ez dituztela gazteak prestatzen soilik lan-munduratzeko, baizik eta, gainera, kualifikazio jakin bati lotutako gaitasunetan ofizialki egiaztatzen dituzte (Lanbide Heziketako titulua), Lanbide Kualifikazioen Sistema Nazionalako "prestakuntza ibilbide orokorrean" sartzen direlako.

Horrek esan nahi du tailer horiek amaitzen dituzten pertsonak Nafarroako Enplegu Zerbitzuan dagokien profesionaltasun-ziurtagiria eskatu ahalko dutela (baldin eta tailerra hark homologatutako prestakuntza-zentro batean eman bada) etorkizunean bloketan prestatzen segi ahalko dutela hamaika profesionaltasun-ziurtagiri lortu arte, eta LHko titulu ofizial bat ere erdietsi ahalko dutela, gainditutako eskumenak berriz ikasi beharrik gabe.

Baliozkotze horiek guztiak antolatze aldera, behin ikastaroa amaituta, Hezkuntza Departamentuak ikasle bakoitzari ziurtagiri akademiko bat emango dio, eta bertan gainditutako modulu edo ikasgaiak jasoko dira eta, hala badagokio, dagokion lankide-kualifikazioari lotutako zer eskumen-unitaterekin datozen bat.

Lanbide-tailerrak

Hezkuntza Departamentuak ikasturte honetan hamabi lanbide-tailer eskaini ditu hamaika zentro nafarretan (lau publiko, bi itunpeko eta bost irabazi-asmorik gabeko erakunde): bulego-laguntzailea, lorezaintza,

igeltserotza, etxebizitzako instalazio elektrikoak, fabrikazio mekanikoa, sukaldaritza, ile-apainketa, mantentze-lan elektromekanikoa, eraikinen mantentze-lana, zurgintza eta ibilgailuen mekanikaria.

Tailer guztiek 1.000 orduko iraupena dute, lanaldi osoko ikasturte baten baliokidea, eta 1. mailako lanbide-kualifikazioko eskumeneko unitateak barneratzen dituzte (lanbide baten laguntzailearen baliokidea).

Edukiak moduluka, hiru bloketan banatuta antolatzen dira: Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko eskumeneko unitateei lotutako gaiak (astean 17 ordu); Komunikazioa eta Gizartea, Zientzia Aplikatuei lotutako edukiak; eta praktiken modulua, ikasturtearen amaieran egiten dena, oro har.

Gainera, lan-taldeari, sorkuntzari eta lan-arriskuen prebentzioari lotutako eskumenak zeharka barneratzen dira, eta metodologia berritzaileetan lan egiten da, proiektuen arabera lana, esate baterako.

Hezkuntzak prestatutako eskaintza

Lanbide-tailerrak Hezkuntza Departamentuak prestatu ditu Oinarrizko LH ikasi ezin duten gazteei erantzuteko, baina orain arte Hasierako Lanbide Kualifikazio Programak (HLKP) egin zitzaizketenak.

Gogoratu behar da, LOMCEren aplikazioak, HLKPen ordez Oinarrizko LH egitea behartzen duela ikasturte honetatik aurrera; 15-17 urte arteko gazteentzako bi urteko prestakuntza da.

Sarbide-baldintza horiek betetzen ez dituzten ikasleen prestakuntza nahiz kualifikazioko beharrei erantzuteko asmoz, Hezkuntza Departamentuak lanbide-tailer horiek Nafarroan finkatzea erabaki du.